



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

181. INFORMAZIO BULETINA

> 2022ko abendua



Europar Batasunak
kofinantzatua

Cofinanciado por
la Union Europea



ALBISTEAK

EGEF eta EGIF+ Euskadi 2021-27 Programak onartu dira

Gipuzkoak 16,62 milioi euro jasoko ditu EGEFetik

Europako Batzordeak azaroaren 29an onartu du EGEFen Euskadirako 2021-27 Programa. Bertan, EAEko estrategia, helburu politikoak eta lehentasunak jasotzen dira, EBkoekin bat datozenak.

Baieztaatu da Gipuzkoak 16,62 milioi euro jasoko dituela EGEF funtsaren testuinguruan, planifikatutako ekintzen kostuaren 40,15 milioi euroko zati bat estaliko duena. Gipuzkoako Foru Aldundiak helburu politiko hauetan parte hartuko du:

OP.1 Europa lehiakorragoa eta adimentsuagoa (2 jarduera):

Administrazio elektronikoa: e-gobernurako plataformak garatzera eta/edo indartzera bideratutako ekintzak.

IKT azpiegiturak: berritasun eta gaitasun handiko azpiegiturak eta e-Administrazioko zerbitzuak garatzeko eta elkarreragingarritasunerako sare seguru eta ultra-azkarrak hedatzea.

OP.2 Europa berdeagoa. 3 ekintza, 3 helburu zehatzei lotuak:

Energia-eraginkortasuna: industria-prozesuetako hondakin-beroak berrerabiltzea, hurbileko eraikinen energia-beharrak asetzeko.

Biodibertsitatea: ibai-ibilguak iragazkortzea eta ibaiak lehengoratzeta.

Hiri mugikortasuna: Gipuzkoako bizikleta bideen lurralde planaren garapena

Bestalde, EGIF+ren euskal programa 2021-2027, Galiziakoarekin batera, Europako Batzordeak onartu duen Estatuko lehenengo bietako bat izan da.

[\(informazio+ - EGEF gaztelaniaz\)](#)

[\(informazio+ - EGIF+ gaztelaniaz\)](#)



> 2022ko abendua

EBk aurrerapenak proposatu ditu BEZaren digitalizazioan, TicketBAlk emango dituenen ildotik

Zenbait lege-zuzenketaren bidez, EB osorako sistema automatizatu eta bateratu berriak bultzatzen ari da, nazioz gairik ezarpen-plataformak dituzten enpresetatik hasita.

Abenduan, Europako Batzordeak hainbat proposamenen izapideari ekin dio, eta Foru Aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren TicketBai euskal proiektuak bezala, aurrera egiten du teknologia berrien aplikazioan, EBko enpresa eta zerga-administrazio guztietan ezartzeko bidean.

Horiei esker, kudeaketa arinagoa egingo da, eta orain arte ezkutuan geratu diren transakzio ekonomikoek ehuneko jakin bat azalerratu daitezke, legeen aurkako zenbait jardunbidek baliabide publikoetan duten beheranzko eragina gutxituz. Kalkuluen arabera, 2020an EBk 93.000 milioi euro galdu zituen BEZaren iruzurrengatik, eta horietatik laurden bat izan zen azken kontsumitzailearekiko salerosteetan. Arauek 18.000 milioi berreskuratu nahi dituzte urtean, eta horietatik 11.000 fakturazio elektronikoa dagozkiola balioetsi da; fakturazio modu honen bidez, berriz, 4.100 milioi euro aurreztuko lirateke urtean enpresen administrazio-kostuetan.

EBk,aldi berean, bere ekonomia gero eta gehiago plataforma digitalen bidez funtzionatzen duten jardueri egokitzen jarraitzea bilatzen du. Proposamen berriak mugaz gairik transakzioak dituzten enpresen eremuan aplikatuko lirateke hasiera batean, baina ekonomia osora hedatzeko eta herrialde kide guztiek aplikatzeko asmoa badago.

Sektore jakin batzuk aipatzen dira, hala nola bidaiarien garraioa edo iraupen laburreko ostatuak. Kasu horietan, azken urteetan plataforma indartsuak sortu dira, eta horiek BEZa arinago bil dezakete prestatzaile efektiboek baino (hala nola plataformen bidez lan bidaiariak garraiatzen dituzten gidariak edo pisu turistikoek jabeak).

Funtsezko beste dimentsio bat da uniformizazioan aurrera egitea EBko herrialde guztietan jardun nahi duten eta sistema estandarizatu baten eraginkortasunaz baliatu nahi duten enpresentzat, aipatutako sektore berri horietan eta beste hainbatetan.

Zuzenketa horien eraginpeko Zuzentaraua eta 2 Erregelamenduak Europako gainerako erakunde eskudunek berrikusiko dituzte, eta laster onartuko direla uste da.



> 2022ko abendua

Irizpide horiek guztiak bat datoz TicketBAI tresnaren testuinguruan planteatzen direnekin; betebeharrak legal eta teknikoak egokitzea, ekonomiaren bolumen errealekin bat datorren BEZaren bilketaren mesedetan, baina baita enpresentzako eragiketarako efizientzia eta arintasunaren mesedetan ere, eta gardentasun handiagorako erosleek eta zergadunen aurrean. TicketBAI sistemaren bidez fakturazio bakoitza automatikoki erregistratuko da zerga-agintaritzan, hau da, Gipuzkoako Ogasunean, gure lurraldearen kasuan.

(informazio+ – Europako Batzordea. Neurri berriak)

(informazio+ – TicketBAI)



> 2022ko abendua

EUROPAKO DEIALDIAK

NEXT GENERATION FUNTSEKIN FINANTZATUTAKOAK

Oinarri arautzaileak ezarri dira proiektu pilotuetan eta itsas berriztagarrietarako entsegu-plataformetan eta portu-azpiegituretan inbertitzeko laguntzak emateko programarako, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Ekonomia zirkularra bultzatzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira eta deialdia egiten da. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 23an amaituko da.

Ekosistema ekintzaile berritzailea bultzatzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira, Ekosistema Ekintzaile Berritzailea Bultzatzeko Programaren barruan, eta 2022an eta 2023an egindako edo egingo diren jarduketetarako deialdia egiten da.

Ehun Ekonomikoa, Inklusiboa eta Iraunkorra Sortzeko Gizarte Ekonomia Bultzatzeko Plan Integralerako laguntzen oinarri arautzaileak ezartzen dira, eta 2022 eta 2023 urteetarako proiektu berritzaileetarako laguntzen deialdia onartzen da, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Estatuko ekosistema ekintzaile berritzailea bultzatzeko laguntzak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dira. Ekosistema ekintzaile berritzailea bultzatzeko programa, eta 2022an eta 2023an egindako edo egingo diren jardueretarako deialdia egiten da. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 20an amaituko da.



> 2022ko abendua

Ibilgailu arinen flotak elektrifikatzeko proiektuetarako pizgarrien programaren bigarren deialdia egin da (MOVES FLOTAS PROGRAMA), Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan. Deialdi honen xede diren laguntza-eskabideak eta horien agiriak 2023ko urtarrilaren 9ko 9:00etatik 2023ko martxoaren 8ko 14:00ak arte aurkeztu ahal izango dira.

"Instalazio eolikoak berrindartzeko 1. programari" dagokion lehenengo deialdia formalizatu da. Programa hori "Birindartze Zirkularra" programen barruan dago, instalazio eolikoak berrindartzeko inbertsioak egiteko laguntzak emateko, **Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan.** Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 17ko 12:00etan hasiko da, eta 2023ko martxoaren 10eko 12:00etan amaituko da.

"2. programa: 10 MW-rainoko minizentral hidroelektrikoen teknologia- eta ingurumen-berrikuntzako jardueretarako" izeneko lehenengo deialdia formalizatu da, PRTR laguntzak emateko "Birindartze Zirkularreko" programetan sartuta dagoena. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 17ko 12:00etan hasiko da, eta 2023ko martxoaren 10eko 12:00etan amaituko da.

"Aerosorgailuen palak birziklitzeko instalazio berritzaileak" izeneko 3. programari dagokion lehenengo deialdia formalizatu da. Programa hori "Birindartze zirkularra" programaren barruan dago, aerosorgailuen palak birziklitzeko instalazio berritzaileetarako laguntzak emateko, PRTR programaren esparruan. Eskabideak aurkezteko epea 2023ko urtarrilaren 17ko 12:00etan hasiko da, eta 2023ko martxoaren 10eko 12:00etan amaituko da.



> 2022ko abendua

BESTE DEIALDIAK

Erasmus+ Programa. Gazteria eta Hezkuntza arloak. Gizarte zibilaren lankidetzarako dirulaguntzak (CSC).

- [ERASMUS-YOUTH-2023-CSC-OG-SGA](#) . Gazteria arloa.
- [ERASMUS-EDU-2023-CSC-OG-SGA](#) . Hezkuntza / Prestakuntza arloak.

Finantzaketa-formula: Beka Operatiboak (OG)/_Dirulaguntza Akordio Espezifikoak (SGA).

StairwAI Programa (“Adimen artifizialerako eskailera”). Teknologia txikieneko ETEek AAKo plataforma partekatueterako sarbidea hobetzea. Horizon Berrikuntza Esparrua.

- [StairwAI](#).
 - Harremanetan jartzen ditu teknologia baxuko ETEak, adimen artifizialeko enpresak eta Cloud teknologien hornitzaileak (datu-hodeiarenak).
 - Enpresa txiki eta ertainek AAn sartzea du xede, haien eskaintza eta balio-kateak hobetzeko.
 - Eskariaren araberako plataformak hobetzea bilatzen du, hau da, ETEek unetan erabil ditzaketen AA-sistema estandarizatuak.
 - Hobekuntza “zerbitzuen geruza berri bat” da, automatizazioari, hizkuntzei eta bestelakoei dagokienez.

BD4NRG Programa: Big Data Energia Sistemen hurrengo belaunaldirako. Horizon Esparrua.

- [BD4NRG](#)
 - Datuak masiboki maneiatzeko aplikazioak energiaren teknologia berrien alde erabiltzeari buruzko programa.

Europako Ikerketa Kontseiluaren (ERC) Zientziazko Kazetaritzako Ekimena (SJI). ERC-2023-SJI-1. Horizon esparrua.

- [ERC-2023-SJI-1](#).
 - EBko ikerketa aurreratuko sarearen kazetaritza-estaldura sustatzeko eta aberasteko ERCren ekimena.



> 2022ko abendua

EOSC Future ekimena, Zientzia Irekiaren Europako Hodeirako (EOSC). Ikerketarako egitura elektronikoak. INFRAEOSC-03-2020. Horizon esparrua.

- EOSCFuture.eu
 - Proiektuak hodeiko merkatal zerbitzuen banaketa hobetu nahi du.
 - Europako ikertzaileei sarbidea emango die FAIR datuen sare zabal batera eta lotutako zerbitzuetara.
 - FAIR: datu "erabilgarriak, eskuragarriak, elkarreragingarriak eta berrerabilgarriak".

Adimen artifizialerako berrikuntza digitaleko nodoen (DIHen) DIH4AI proiektua. Horizon esparrua.

- DIH4AI.eu
 - Proiektuak 2 deialdi irekiko ditu ETEek gidatutako eta DIH nodoek lagundutako 20 partzuergo esperimental inguru erakartzeko.
 - Eremu honetako ekosistema 3 norabideetan hedatzea bilatzen du: A.A. aplikazioak, bai eta ETEen, eta DIH nodoen esperimentazioa.

IMREG Deialdia: Kohesio- eta eskualde-politikarako informazio-neurriak.

- IMREG-2022-INFOME
 - Zabalkuntza-tresna mediatikoak eta ekitaldiak.
 - Herritarrei eta kohesio- eta eskualde-funtsetan partaide eta hedatzaile izan daitezkeen eragileei zuzendutako ekintzak.
 - Lotutako tresnak barne hartzen ditu, hala nola Trantsizio Justurako Funtza, EBko Berreskuratze Plana edo Laguntza Teknikorako Tresna.

IMCAP Deialdia: Nekazaritza-Politika Bateratuazko informazio-neurriak.

- IMCAP-2023-INFOME
 - NPBren ezagutza eta irudia hobetuko duten zabalkuntza-proiektuak.

IntelliOT Programa. Adimen Artifizialeko sistemetan IoT (Objektuen Internetaren) aplikazioak. Horizon Esparrua.

- IntelliOT
 - ETEen proiektuetarako laguntzak eta horiek IntelliOT partzuergoak sortutako sarera sartzea,
 - IKTen lerroa (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak)
 - Horizon Europe berrikuntza-esparrua.



> 2022ko abendua

DigiPrime Programa. Ekonomia zirkularreko DigiPrime plataforma digitala ustiatzeko proiektu pilotuetarako deialdia. Horizon Esparrua.

- [DigiPrime DT-ICT-07-2018-2019.](#)
 - Plataforma eta haren zerbitzuak erabiltzen dituzten proiektuak.
 - Ekonomia zirkularreko sare edo balio-kate iraunkorrak eta sektore artekoak sortzea.
 - "Konektatutako fabrika adimendunak".
 - Horizon esparruaren IKTen lerroa.

CEF, Connecting Europe Tresna. CB RES (mugaz gaindiko energia berriztagarria) proiektuetarako prestakuntza-azterlanak egiteko deialdia.

- [CEF-E-2022-CBRENEW-PREPSTUDIES.](#)
 - Prestaketa-azterlanak, onuradunaren proiektua CB RES-en estandarrek eskatzen dituzten eskakizun teknikoetarako eta nazioz gaindiko lankidetzaz-egiturara egokitzeko zerbitzuekin lotuta egon daitezke.

Music Moves Europe azpiprograma, Creative Europe (CREA) programaren kultur atalekoa.

- [CREA-CULT-2022-MME.](#)
 - Musika modu iraunkorrean banatzeko proiektuak, batez ere zuzenekoak.
 - Lehiakortasuna, berrikuntza eta aniztasuna sustatzen duten partzuergoak.
 - Ekitaldi guneen kudeatzaileen arteko lankidetzaz; esportazioa; eta zuzeneko online emisioak.
 - Sektoreko eragileentzako finantza-euskarria eta ahalmenen garapena.

Horizon esparruaren 5.klusterraren 2022ko 3. Helburuaren (energia horniduraren) 3. Deialdi sorta.

- [HORIZON-CL5-2022-D3-03](#)
 - 3. helburua energia jasangarriaren, seguruaren eta lehiakorren hornidura/eskaintza da.
 - Horizon Europe berrikuntza-esparruko 5. klusterrak energia, klima eta mugikortasuna biltzen ditu.
 - -03-01 CSP (kontzentrazioko eguzki-energia) eta/edo kontzentrazioko berotasun/eguzkiko instalazio osagai eta/edo azpisistema berritzaileak.
 - -03-02 Nazioarteko jardunbide onenak bioerregai iraunkorrak eskalatzeko.
 - -03-03 Fotosintesi artifizial eraginkorra eta zirkularra.
 - -03-04. Parke eolikoaren kontrol integratua.
 - -03-05 Film meheko teknologia berriak (TF), eraginkortasun handikoaren bidean daudenak
 - -03-06 Balio txikiko hondakin biogenikoetatik abiatuta errektuntza- eta gasifikazio-sistemen industria-erabilerarako teknologia eraginkorrak eta isuri txikikoak
 - -03-07 Jatorri ez-biologikoko algak eta erregai berriztagarriak garatzea



> 2022ko abendua

- -03-08 Energia hidroelektrikoa operatzeko eta mantentzeko soluzio digitalak garatzea
- -03-09 Modulu fotovoltaikoak birziklatzea bitzta baliagarriaren amaieran.

[“EUROPAKO FUNTSAK GIPUZKOAN” webgunea](#)